HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

www.ivap.org web-orrialdetik jaitsita

# ATARIKO PROBA

# 2.HE

# 4.eredua

# A eredua

Erakunde autonomiadura
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1.- Zein da ZUZENA?

a) Azkar hazten ziren ugari zuhaitzak landatu ziren XX. mendearen hasieran.
b) Aurten udalak langabeentzako hainbat ikastaroak antolatu ditu.
c) Denda horretan mendirako edozein produktuak aurki ditzakezu.
d) Ikastaroan zenbat pertsonak parte hartuko duten galdetu dit.

2.- *Kopenhageko aireportu internazionaletik Islandiako hiriburura ................ ginen.*

a) itsatsi
b) erantsi
c) abiatu
d) babestu

3.- *Bere ordenagailuaren aurrean buruan bisera bat ................ ipinita zeukan gizon bat ikusi zuen.*

a) atzekoz aurrera
b) nora ezean
c) buru-belarri
d) larrugorrian

4.- Zein da ZUZENA?

a) Arrantzaleek, etxera itzultzen dutenean, oporraldia izaten dute.
b) Sahararako janari-bilketa egiten ari dute eskolan.
c) Karrera bukatu ondoren Madrilen hasi zuen master bat egiten.
d) Iaz egin genuen bidaian toki asko ezagutzeko aukera izan genuen.

5.- Zein da ZUZENA?

a) Gasteizean, 2003ko otsaila 7ean.
b) Gasteiz, 2003aren otsaila 7an.
c) Gasteizeko 2003a otsailak 7ean.
d) Gasteizen, 2003ko otsailaren 7an.

6.- *Taldekoek ahaleginak egin ................, ez zuten lortu zauritutako laguna lasaitzea.*

a) bazituzten ere
b) baitzituzten
c) zituzten bezala
d) zituztenik

7.- *Gabonetako konpota egiteko, madariak ................ arte egosi behar dira, ordu erdiz gutxi gorabehera.*

a) neurtu

b) bigundu

c) garraztu

d) baretu

8.- *Futbol-taldeko entrenatzaileak hauxe adierazi du: «Jokalariak etxetik kanpo gero eta ................ ari dira jokatzen».*

a) hobea

b) ondoen

c) hobeto

d) ondo

9.- ................ *inguruan geldituko gara Donostiarako trena hartzeko.*

a) Hamar eta hamarretan

b) Hamarretan eta hamarrean

c) Hamarrak eta hamarretan

d) Hamarrak eta hamar

10.- *Elikadurari ez diogu behar ................ garrantzirik ematen, eta ondorioz, gaixotasun asko izaten dugu.*

a) bezalako

b) hainbeste

c) bezain

d) hain

11.- *Matrikulatutakoak 45 ikasle baino gehiago izango ................, espediente onena dutenek egingo ................ ikastaroa.*

a) balituzte / luke

b) balitz / litzateke

c) balira / lukete

d) balu / lioke



Erakunde autonomiadura
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

12.- *Berandu arte bulegoan ................ erabaki zuen hurrengo egunerako lana bukatzeko.*

a) geratzeko
b) geratu
c) geratzea
d) geratzeari

13.- *Badute ................ antzik iparraldeko eta hegoaldeko biztanleen bizitzeko ohiturek?*

a) elkarrentzat
b) elkar
c) elkarri
d) elkarren

14.- Zein agur erabiliko zenuke ikastolako zuzendariari zuzendutako eskutitzean?

a) Zuzendari agurgarria hori:
b) Zuzendaria hori, agur t´erdi:
c) Jaun/andre agurtua:
d) Jauna/andrea:

15.- *Aditu talde batek petroliotik lortzen diren erregaien ordez biodiesela erabil ................ adierazi du.*

a) litekeela
b) ditzakeela
c) liratekeela
d) diezaiekeela

16.- *Berrogeita hamar urte bete zituenean elkarteko lehendakari ................ zuten.*

a) arautu
b) izendatu
c) merezi
d) eskaini

17.- *Unibertsitateak ikasle baten kontrako salaketa jarri du beste baten azterketa ................*

a) egiteagatik.
b) eginez.
c) egin arren.
d) egin ez ezik.

18.- *Lanean jarraitu beharreko metodologia ................ azaldu zigun.*

a) egoera onean
b) zehatz-mehatz
c) ika-mika
d) goitik jota

19.- *Atzo gauetik etxetik falta den ................. bila dabiltza, bai ertzainak, bai udaltzainak.*

a) gizonari
b) gizonaren
c) gizona
d) gizonak

20.- Zein da <u>OKERRA</u>?

a) Etor zaitez!
b) Ekar itzazu paper horiek!
c) Goaz igerilekura!
d) Etor dadila oinez!

21.- *Osasunerako Mundu Erakundearen arabera, nahikoa da gaixoen odola mikroskopio baten bidez aztertzea malaria ................ jakiteko.*

a) dute
b) dutenik
c) badute
d) duten

22.- *Atzerriko enpresetan praktikak egin dituzten ikasleek, lana bilatzeko orduan, aukera gehiago izan ................ dute.*

a) al
b) baldin
c) ohi
d) ote

23.- *Gaur eguneko zirkulazio-kodeak 12 urtetik beherako haurrak autoaren aurreko eserlekuan joatea ................ du.*

a) desegiten
b) debekatzen
c) urruntzen
d) mozten

24.- *................ errepide batzuetan auto gehiegi ibiltzen delako baizik.*

a) Neurria ez da Madriletik kanpo zabaldu,
b) Sarritan ez dugu hiri handi batzuetan izaten den auto-ilararik,
c) Arazo horiek ez dira konpontzen errepide berriak eginda,
d) Auto-ilara asko ez da istripuen eraginez sortzen,

25.- *Anorexia eta bulimia izeneko gaixotasunak dituztenek ................ lodi ikusten dute.*

a) euren burua
b) euren buruarekin
c) euren buruaz
d) euren buruarentzat

26.- *Egunkarian agertu zen «Hondamendi naturalen kalteak» ................ berria mahai gainean ................ ikasle guztiek.*

a) zeraman / zekarten
b) zioen / zeukaten
c) zekarren / zekiten
d) zeukan / zioten

27.- *Etxean edo kalean lapurretarik ez izateko Ertzaintzak eman duen zenbait ................ kontuan hartzea komenigarria da.*

a) ale
b) oinarri
c) gomendio
d) eskubide

28.- *Indonesian ................ gertatu da, bertakoek azken 45 urteetan gertatutako handiena izan dela adierazi dute.*

a) izugarri lurrikara
b) izugarriz lurrikara
c) lurrikara izugarrizko
d) izugarrizko lurrikara

29.- *Gaur egun, dena egiten dugu presaka eta gure bizitzako ohiturak ere aldatu egin ditugu, bereziki, jateko orduan.* Zein da esaldi horren PAREKOA?

a) Gaur egun bizitzako ohiturak presaka egiten ditugu eta jateko ordua ere aldatu egin dugu.
b) Jateko orduan, dena egiten dugu presaka eta gaur eguneko ohiturak ere aldatu egin ditugu.
c) Gaur egun dena presaka egiten dugu eta beste ohitura batzuk hartu ditugu, batez ere, jateko orduan.
d) Dena presaka egitea da gehien aldatu dugun ohitura, bereziki, jateko orduan.

30.- Zein da ZUZENA?

a) Mendi horri argazkiak atera behar dizkiot lan bat egiteko.
b) Gutun hauek bidaltzen lagundu behar dizkigu.
c) Zorionak emateko kalean itxaron nahi dizkiot.
d) Ikastaro honetan ordenagailuak erabiltzen ikas ditzakegu.

31.- *Udalak Koldo Mitxelenak euskaraz idatzitako gutunak ............... ditu.*

a) areagotu
b) argitaratu
c) arriskatu
d) aitortu

32.- *Makina bat informatika-ikastaro egin ditu, baina oraindik ez daki Interneten ................*

a) ibiltzen.
b) ibili.
c) ibiltzera.
d) ibiltzeko.

33.- *Datorren astean Euskal Autonomia Erkidegoko garraiolariek greba egingo dute; ................, gutxieneko zerbitzuak egongo dira.*

a) bestela
b) ezta
c) dena dela
d) ere ez



Erakunde autonomiadura
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

34.- *Telebista nahiz eta duela gutxi asmatu, asmakizun arrakastatsua izan da, ez dagoelako telebistarik gabeko etxerik.* Zein da esaldi horren PAREKOA?

a) Telebistak, oraintsu asmatua izanda ere, arrakasta handia izan du, etxe guztietan dago eta.

b) Telebistak duela gutxi izan du arrakasta, orain arte, telebistarik gabeko etxeak zeudelako.

c) Telebista aspaldi asmatu zen asmakizuna da, horregatik, telebistarik gabeko etxe ugari dago.

d) Telebista duela gutxi asmatu da, horregatik, oso arrakastatsua izan da etxeetan.

35.- *Zuzendaritzari ................ produkzio eta fabrikazio prozesuetarako beharrezkoak diren baliabideak lortzea.*

a) deritzo
b) dagokio
c) datorkio
d) dirudi

36.- *Hilaren hamabitik hemezortzira herriko kultur etxean artista ezagun baten ................ erakusketa dago.*

a) zurezko eskulturen
b) eskultura zurezkoen
c) zurez eskulturen
d) eskulturen zurez

37.- *Bizkaiko autoeskolen presidentearen ustez, ................*

a) askori ez diela gidabaimen berriak eragingo uste du.
b) ez dagoenik argi autoeskolak bakarrik arduratuko diren birziklatze ikastaroez.
c) gidabaimen berriarekin hilkortasun-tasa %20 jaits daiteke.
d) gidabaimen berria denoi eragiten digun erabakia dela.

38.- Zein da ZUZENA?

a) Ikastaroa egin aurretik proba bat egingo behar duzu.
b) Atzo gauean ezin dut antzerkira joan gaixorik nago eta.
c) Hemendik aurrera arazoei aurre egingo behar izango diegu.
d) Sarritan etorkizunean zer gertatuko zaigun pentsatzen dugu.

39.- *Hizlariak behin baino gehiagotan adierazi zuen ez ahazteko emakumeek gaur egun ere diskriminazioa jasaten ................*

a) dutenez.
b) dutela.
c) duten.
d) dute.

40.- *Ikerketen arabera, gatz-kopurua murriztuta tentsio arterialak behera egiten du. ................, bihotzekoa izateko arriskua txikiagoa da.*

a) Baita
b) Hala ere
c) Beraz
d) Ere

41.- *Langileen batzordeko kideak zuzendaritzaren ................ zain daude.*

a) erantzunak
b) erantzunarentzat
c) erantzuna
d) erantzunaren

42.- *Goseak urtero sei milioi haur hiltzen dituela gogorarazi ................ zenbait erakundek.*

a) gaitu
b) digu
c) dugu
d) gara

43.- *Ameriketako Estatu Batuetako biologo batzuek zuhaitzek ................ altuera har dezaketen kalkulatu dute.*

a) zenbat
b) zenbateko
c) zenbaten
d) zenbatetik

44.- *Nagusiaren izenean mintzatu ................ idazkariari ez genion sinetsi soldata igoko ..............*

a) ziguten / zutela.
b) zitzaigun / zigutela.
c) zigun / zizkigula.
d) zitzaizkigun / zela.



Erakunde autonomiadura
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

45.- *Badakigu meningokoko bakterioa dela haurrengan meningitis kasu gehien eragiten ................*

a) duena.
b) dutenek.
c) duenak.
d) dutenak.

---

**ORDEZKO GALDERAK**

46.- *Ingurumena zaintzeko ahalik eta hondakin ................ sortzen ahalegindu behar dugu.*

a) gutxien
b) gutxiago
c) gutxi
d) gutxirik

47.- Jarraitu elkarrizketa:
— *Zer uste duzu egiten dutela egungo gazteek lagunekin irteten direnean?*
— ................

a) Kale egin!
b) Hankaz gora!
c) Musu-truk!
d) Batek daki!

48.- *Birusa herrialde garatuetan zenbat ................ den jakiteko goizegi da oraindik.*

a) bidaiatu
b) hedatu
c) landu
d) zorroztu

# ATARIKO PROBA - 2.HE

## 4. eredua

# ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. | D | 2. | C | 3. | A | 4. | D | 5. | D |
| 6. | A | 7. | B | 8. | C | 9. | D | 10. | A |
| 11. | C | 12. | C | 13. | D | 14. | D | 15. | A |
| 16. | B | 17. | A | 18. | B | 19. | B | 20. | C |
| 21. | D | 22. | C | 23. | B | 24. | D | 25. | A |
| 26. | B | 27. | C | 28. | D | 29. | C | 30. | A |
| 31. | B | 32. | A | 33. | C | 34. | A | 35. | B |
| 36. | A | 37. | C | 38. | D | 39. | B | 40. | C |
| 41. | D | 42. | B | 43. | B | 44. | B | 45. | A |

**ORDEZKO GALDERAK**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 46 | A | 47 | D | 48 | B |